

GUGGENHEIM BILBAO

VAN GOGHETIK PICASSORA. THANNHAUSER LEGATUA

2018(e)ko irailak 21 – 2019(e)ko martxoak 24

GAIAK | PLACE VINTIMILLE, 1909–10

[Argazkigintza](#) | [Arkitektura](#) | [Dekorazio-arte](#) | [Eskultura](#) | [Instalazioa](#) | [Pintura](#) | [Serigrafia](#) | [Argazkigintza](#) | [Arkitektura](#) | [Dekorazio-arte](#) | [Eskultura](#) | [Instalazioa](#) | [Pintura](#) | [Serigrafia](#) | [Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia](#) | [Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa](#) | [Hizkuntza eta Literatura](#) | [Informatika](#) | [Teknologia](#) | [Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia](#) | [Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa](#) | [Hizkuntza eta Literatura](#) | [Informatika](#) | [Teknologia](#)

- **SARRERA**



Place Vintimille, 1909–10

Olio-pintura kolarekin Kraft paper marroiaren gainean, mihise gainean muntatua
Bi panel; ezkerrekoa: 200,1 x 70 cm; eskuinekoa: 200,2 x 70 cm

Thannhauser Bilduma, Solomon R. Guggenheim Museum, New York, 1978, Justin K.
Thannhauser, dohaintza 78.2514.74

“Bi joera ditut nire baitan: kanpoko pertzepzioaren azterketa, esperientzia mingarriz betea, nire umore eta nire nerbioentzako arriskutsua dena. Eta dekorazio piktorikoaren azterketa (...), langilearen lasaitasuna eskaini behar liratekeena”[1].

Édouard Vuillard (1868–1940) 1868an jaio zen Cuiseaux herri frantziar txikian, Suitzako mugatik gertu. Bederatzi urte zituela, familiarekin Parisera joan zen bizitzera. Aita, ejertzitoko ofizial erretiratua, handik urte batzuetara hil zen, eta Marie, ama, hiru seme-alabarekin eta errenta eskas batekin utzi zuen. Bera ehun-diseinatzaileen familiakoa zen, eta, bizimodua ateratzeko, lenteria bat eduki zuen lehenik, eta jostuntzako negozioa zabaldu zuen ondoren, familiak bizileku izan zituen Parisko apartamentu ezberdinetan.

Édouard amarekin bizi zen jostuntzako tailerrean lan egiten zuten emakumez eta ehunez inguratua; ama izan zuen babesik handiena beti. Haren pinturretan, Vuillard objektuz betetako barruko eszenetara mugatzen zen gehienbat; objektuz betetako tokiak izaten ziren, baina goxoak, eta ama eta arreba maiz erabiltzen zituen modelo gisa. Eszena horietan, motibo estantpatu ugari agertzen dira —pintatutako papera, tapizak eta jantzien oihalak— elkarren alboan ipiniak, konposizio nabarretan collage baten antzeko efektua sortzeko.

GUGGENHEIM BILBAO

1888an, Vuillardek Jean-Léon Gérôme-rekin ikasi zuen tarte labur batez École des Beaux-Arts Eskolan, baina ez zitzaion ikuspegi kontserbadorea gustatu. Beranduago, urte berean, Académie Julian zentrorra igaro zen, eta, han, arte akademikoa zein inpresionismoa ukatzen zuten artista gazteak ezagutu zituen. Vuillard harremanetan jarri zen **Nabis** bezala ezagutzen zen taldearekin. Mendearen amaiera aldera, eskala handiko mural deigarriak eta dekoratzeko bionboak egiten ari zen, eta, aurrerago, familia frantses dirudunen erretratuak egin zituen. Nahiz eta Vuillarden arteak figuratiboa izaten jarraitu, azalera piktorikoan erabat oinarritutako haren ikuspegiak —hondo lautua, batzuetan pintatu gabea, inguruan integratzen ziren irudiekin dekoratua— XX. mendean nagusituko ziren abstrakzio-elementuetako batzuk iragarri zituen.

1908an, Vuillard eta ama rue de Calais-ko 16. eraikinean kokatutako apartamentu batera (kantoian zegoena) joan ziren bizitzera, Place Vintimille alderako ikuspegiak zituena (gaur egun, "Place Adolphe Max" bezala ezagutzen dena). Garai hartan, egun bezala, parke txikiak, zuhaitz lerdenekin eta XIX. mendeko Hector Berlioz konpositorearen estatuarekin, inguru lasaia eskaintzen zien paseatzaileei, turistei, jolasten zuten haurrei eta hartzainei. Hurrengo hogeitun urteetan zehar, Vuillardek parke hori marraztu eta margotu zuen, horren argazkiak egitearekin batera, imajina daitezkeen ikuspuntu eta ikuspegi guztietatik.

Auzo horretan igaro zuen Vuillardek bere gaztaroa, eta bertan bizi ziren lagun eta artista lankide ugari. Thannhauser bildumako bi paneletan, bosgarren solairuan zegoen apartamentuko leihoak eskaintzen zituen kanpoko ikuspegi irudikatzen da; ohol bakoitzean xehetasun handiz agertzen dira eguneko ordu bat eta baldintza meteorologiko ezberdinak nahiz xehetasun espezifikokoak, artistaren behaketa zehatzaren fruitu. Place Vintimille-ren bi ikuspegi hauek beste lau paneleko multzo zabalagoaren barnean sartzen dira; Vuillardek 1908 eta 1910 urteen artean egin zituen, Henry Bernstein dramagile ospetsuaren enkargua betetzeko. Lanek ez dute osotasun etengabe bat eratzen, baizik eta parkeak deskribatzen duen elipsearen sektore ezberdinak hartzen dituzte. Gaur egun, Berliozen estatua idulki baxuagoan kokatzen bada ere, parke txikia eta inguruko etxeak ia ukitu gabe mantentzen dira.

• EZTABAIDAGAIK

Erakutsi klasean *Place Vintimille*, 1908–10 eta ikasleei ondorengo eskatu: deskribatu zer ikusten duzuen pintura hauetan. Non gaude? Noiz? Nola dakizue? Zer-nolako jarduerak ikusten dituzue?

Urteko zein urtaro irudikatzen da koadro hauetan?

Asteko zein egun eta eguneko zein ordu egon litezke islatuta? Arrazoitu zuren erantzunak pintoretatik ateratako behaketa espezifikoekin.

Eman kalean agertzen diren pertsonen aurre egin beharreko baldintza atmosferikoak deskribatzen dituen "mezu meteorologiko" bat. Zer-nolako arropa jantziko zenuke honako hau bezalako egun batean?

Zein lekutan aritu ote zen artista margotzen? Nola dakizue?

Nolako itxura izan dezake Place Vintimille-k gaur egun? Aipatu zer-nolako gauzak aldatuko ziren. Zuen ustez, zergatik erabaki zuen Vuillardek parke beraren inguruan hainbeste panel pintatzea?

Zertan du antza parke honek zuen auzoko parkearekin? Zertan da ezberdina?

GUGGENHEIM BILBAO

- **JARDUERAK**

Hautatu zure auzoan zuretzat berezia den leku bat. Egin zerrenda bat kokapen horrekin lotzen dituzun hitzekin. Zuretzat zeintzuk dira garrantzitsuak? Idatzi poema bat espazio horrek nola sentiarazten zaituen agertzeko.

Haren pinturez eta marrazkiez gain, Vuillardek dozenaka argazki atera zizkion parkeari, eta erreferentzia bisual gisa erabili zituen. Hautatu leku ezagun bat eta atera argazkiak denboran zehar, urtaroak igarotzen diren heinean, eguneko ordu ezberdinetan, eta baldintza meteorologiko ezberdinetan. Bildu irudi guztiak. Aztertu eta adierazi ingurune aldaketek nola eragiten duten argazkien atmosferan. Zeintzuk dituzu nahiago? Zeintzuk egokitzen dira gehiago leku hori ikusteko duzun moduarekin?

Grabagailuaren laguntzarekin, sortu pintura horiei laguntzeko soinu-banda, paneletan inplizitu dauden soinu guztiak hartzen dituen.

Egin bigarren grabazio bat zure auzoko parkeko soinuekin. Zertan dira ezberdinak? Zertan dira antzekoak?

Vuillardek tenperarekin lan egitea erabaki zuen hainbat arrazoi zirela medio. Teknika horrek prestatzeko denbora eskatzen badu ere, azalera matea eta opakua ematen zion, eta hori beste pintura-mota batzuen baina gehiago atsegin zuen.

Batzuetan denbora eta ahalegina inbertitzeak merezi du, prozesua nekezagoa izan arren, emaitzari erreparatuta. Era horretako kasuak aipa ditzakezu? Sortu natura hil soil bat eta marraztu edo margotu hiru baliabide ezberdinekin. Esate baterako, margotu natura hil bera akuarelan, tenperan eta pastelean. Zer-nolako eragina du xehetasun horrek obrak eragiten duen inpaktuan? Zein baliabide duzu nahiago obra jakin horretarako? Zergatik?

Zein da leiho batetik begiratuta duzun ikuspeirik gustukoena? Zerk erakartzen zaitu panoramika horretan? Eszena hori harrapatzeko, azetato garden bat erantsi dezakezu zeloarekin leiho gainean. Errotulagailu beltzarekin, marraztu leihoaren beste aldean ikusten den ikuspegiaren siluetak.

Ziurtatu begi bat itxi eta burua ez mugitzea marrazten duzun bitartean. Behin amaituta, kendu marrazkia leihotik eta jarri orri zuri baten gainean. Jarraitu egindako marrazkia osatzen, xehetasunak eta kolorea gehituta.

- **HIZTEGIA**

Nabis (1888 inguruan): hebreeraz "profeta" esan nahi duen hitzarekin izendatutako margolari-taldea. *Nabis*-en ustez, garrantzitsuena ez zen gauzak irudikatzea, zirrarak eta sentrazioak sortzea baizik. Pinturez gain, ilustrazioak, kartelak eta karikatura politikoak egin zituzten, Parisko bizimoduan oinarrituta.

- **BALIABIDEAK**

Cogeval, Guy, *Edouard Vuillard*, The Montreal Museum of Fine Arts and National Gallery of Art, Yale University Press, Washington, New Haven eta Londres, 2003.

Rewald, Sabine, "Vuillard's Unlikely Obsession: Revisiting Place Vintimille", *Art in America*, 2001eko uztaila, 70–79. or.

National Gallery of Art: <https://www.nga.gov/exhibitions/2003/vuillard.html>

GUGGENHEIM BILBAO

- OHARRAK

[1] Édouard Vuillard, 1894